


VILLA LUZ
D MAILA

JAIALAI 1



Frantzisko Urkola, 1916.

Deskribapena

Estilo neoeuskaldunaren lehen etapako villa, baserrien interpretaziorako ohiko patroiekiko halako askatasun batez zertua. Interpretazio alde deigarriena zera dugu, beheko solairuan ataria jartzea, zutabe pareen gaineko arku eliptikoz hornitua, gainean terraza handi bat duela. Atari hori arotzeria bitartez itxi dute. Lengoia neoeuskaldunaren bigarren interpretazio librea mentsula gainean aurrera egiten duten murruek gainazaleko bilbaduraren inbasioa da, murruek eta bilbadura arineko aurrealdean artean aldea ezarri beharrean. Etxearen profilak ohikoak baino solairu bat gehiago dauka, hau da, harri hormaz egin zokaloa, lehen solairua, bilbadura hasten den bigarrena, eta teilatupeko hirugarrena. Azpimarratzekoa, halaber, proiektuko aurretiko bistaren eta errealtatearen arteko aldea, estalkiko isurki desberdinak baitzeuzkan hasierako marrazkian.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atariko itxiturak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezkoak eta bilbadurak. Estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.